



Esp. kodea: 2015SAPL0016

Gaia: PLENOA 2015-12-29
Hasiera eguna: 2015/12/23

AKORDIOEN LABURPENA

Udal Plenoak, 2015eko abenduaren 29a egindako bilkuran, erabaki hauek hartu dituela informatzen dut:

1.- 2016. urtealdiko Udal Aurrekontuak onartzea proposatzea.

Gehiengoz onartu da Ogasun Batzordeak proposatutako diktamena, 1.0931.623.231.51.02. partidaren izen aldaketarekin, zeinaren bidez hasierako onespina ematen zaion Udaleko 2016ko ekitaldiko aurrekontu orokorrari (35.433.258,50 euroko aurrekontua). Barne hartzen ditu udalaren aurrekontua (32.078.733,50 euro) eta Iturbide Egoitzarena (3.433.766,48 euro).

Udalbatzan aurkeztutako emendakinak (bi osoko emendakin Baleike eta Irabazi udal taldeek aurkeztuak eta 7 emendakin partzial EH Bildu udal taldeak aurkeztuak, hauetariko bat erretiratu) ez dira onartuak izan.

2.- 2016rako Lanpostuen Zerrenda onartzea.

Aho batez onartu da.

3.- 2016ko Plantila Organikoa onartzea

Aho batez onartu da.

4.- Udal enplegatuen ordainsariak direla eta, akordio proposamena.

Aho batez onartu da pertsonal batzordeak proposatutako akordioa, zeinak barne hartzen dituen, udal enplegatuei ordainsariak %1 igotzea, 2012an jaso ez zen ordainsari bereziaren geratzen den zatia ordaintzea eta bi funts eratzea, bata 2012 uztaila eta 2013ko abendua bitartean elkarkidetzara egin ez zen aportazioari dagokion kopurua barne hartzen duena eta bestea, modernizazio, zerbitzu publikoen arrazionalizazio, erakundearen produktibitatea e.a. areagotzearekin lotura duena.

Arrasaten, 2015eko abenduaren 29a

IDAZKARIA



ARRASATEKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE MONDRAGÓN

Idazkaritza ■

Esp. kodea: 2015SAPL0016

Gaia: PLENOA 2015-12-29
Hasiera eguna: 2015/12/23

Amaia Gorrotxategi Zubizarreta